



BARREN
TOKIKOM

36ko gerra berriz gurean





IV. URTEURRENA

Jose Mari Aramberri Urrutia

2012ko irailaren 13an hil zen. Haren oroimenez IV. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 10, 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.***

Familiakoak



Ricardo Garate Zubiaurre

2016ko uztailaren 18an hil zen, 57 urte zituela.

***Bihotzean mina,
begietan malkoa
eta inguruan zure irribarrea.
Gero arte, lagun.***

Arantzaren koadrila



Ricardo Garate Zubiaurre

2016ko uztailaren 18an hil zen, 57 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Isiltasunean izan dira
zure lana eta bizitza,
beti izango zara
gure oroimenean eta bihotzean.***

Sendia



ANDOITZ AGIRREGOMEZKORTA



"Nahixago dot errealitate anitz honetatik gertu dagan hezkuntza gure haurrentzat"

Kurtso berri on Abel: aAurten etxeko txikixak ere hasiko deu kurtua Haureskolan. Hezkuntza formal munduari buruz ezer gutxi dakitt oindiok, baina tokatuko jata espabilatzen juatia. Eskerrak etxian irakasle bat dagan eta berak argitzen dizkidan zalantza asko.

Bada arlo honetan atentziua deittu didan gai bat eta galdera ugari sortzen dizkidana: zer dala-eta daude familia etorkinetako haur gehixenak Herri Eskolan ikasten? Nere ezjakintasunian zera galdetzen diot neure buruari: gizarte ikuspegitik, ez al litzateke hobia izango haur hauek herriko eskola bixen artian hobeto banatuta egotia?

Zera esan nahi dot: herriko neskek eta mutilek gela berian ikastia zuzena ikusten dot, gizartian ere elkarrekin bizi gerallako, neska eta mutil. Ez dot uste inork hori zalantzan ipintzen

dabanik. Ez nuke logikotzat joko herriko ikastetxe baten neskek izatia eta bestian mutilak, banatuta. Ez nioke abantailarik ikusiko. Oinarri berian ikusten dot ikasle gorak ere gela arruntetan integratzia, nagusi dianian ere gizarte "arruntian" jardun biharko dabelako. Gizartian irudi dira azkenian ikasle gelak. Ez dozu uste?

Beraz, zein da familixa etorkinetako haurrekin ezberdin jokatzeo arrazoa? Elgoibarko gaur egungo gizartian ez al daude gero eta etorkin gehixago? Ez al lukete gure ikastetxietako gelek errealitate horren irudi izan bihar? Nik nahixago dot errealitate anitz honetatik gertu dagan hezkuntza gure haurrentzat. Izan ere, etorkizunerako ere harreman aberatsez integratutako gizarte bat nahi dot, ez *ghettoz* osatutako herri bat.



ABEL ARRIAGA



"Ez legoke gaizki bi ikastetxeen arteko elkarlan eta kolaborazio estuagoa, ikasleen arteko zubiak eraikitzeo eta ghettoekin bukatzen saiatzeo"

Aupa, Andoitz. Ikastetxeetan sortzen diren *ghettoen* arazoa ez da berria, baina bai gero eta nabarmenagoa hainbat herritan. Eibarren eta Gasteizen esaterako, gurasoen agendetan gorritz markatuta dagoen gaia da. Oso konplexuak dira kurtso erdian heltzen diren etorkinen bat-bateteo eskolaratzeak, integrazio eta hizkuntza arazoak tarteko. Eskola publikoek, banaketa orekatuagoa aldarrikatzen dute, itunpeko ikastetxeek ere diru publikoa jasoten duten heinean, ardurua haiena ere badela argudiatuta.

Neska-mutilen eta entzumen arazoak dituztenen integrazioak jarri dituzu adibide gisa. Hala ere, eskola integratzaileak baino, eskola inklusiboak behar ditugula uste dut: bazterketarik egiten ez dutenak, aniztasunean oinarritzen direnak. Tamalez, kasu gehienetan jartzen diren laguntza, errefortzu eta bitartekoak ez dira nahikoak.

Elgoibarren, ikastetxe aukeraketa egiterakoan, metodologia akademiko ezberdinek baino pisu handiagoa dute gurasoen arrearitziek, euskara mailarekiko beldurrek eta sare publikoarekiko edo ikastolekiko militantziak. Aukeraketa horren ondorio dira sortzen diren nolabaiteko *ghettoak*. Ez legoke gaizki bi ikastetxeen arteko elkarlan eta kolaborazio estuagoa, ikasleen arteko zubiak eraikitzeo eta *ghettoekin* bukatzen saiatzeo. Adibide onak ditugu kirol taldeetan eta aisian (Atxutxiamaika,...)

Dena dela, ardurua guztia ez da ikastetxeena: geurea ere bada. Ez da zilegi kexatzea, guk ez badugu ezer egiten; ez bagera esaten eta idazten dugunarekin koherenteak izaten. Lorea Agirrek dioen bezala, egiten duguna gara. Eta asko daukagu egiteko. Asko daukagu, egiten dugunetik zuzentzeo. Gainera, batzuk kontrakoa uste badute ere, inklusiorako erreminta ezin hobea daukagu: euskara.

JESUS JIMENEZ

Ekonomialaria



Brexit, 60 egun

60 egun pasa dira bozketan egin zenetik, eta Europako Batasunetik irteko erabakia hartu ostean ondorioak izan dira, onerako eta txarrerako, baina datu makroekonomikoek ez dute ekonomistek espero zuten berehalako eragin kaltegarriarik erakusten.

Adibidez, liberak euroarekiko zuen balioaren %14 galdu badu ere, produktio kostuak garestituz, esportazioetan eta batez ere turismoan onurak ekarri ditu. Bestetik, inflazioa igo baldin bada ere, prezioen igoera oso mugatua izan da,

“Datu makroekonomikoek ez dute ekonomistek espero zuten berehalako eragin kaltegarriarik erakusten”

maila onargarrietan mantenduz. Kontsumitzaileen konfiantza eta gastuaren datuak ere positiboak izan dira udan, nahiz eta etorkizunerako hazkunde aurreikuspenak okerragoak diren, erabakiaren ondorioz. Eta merkatuetan, hasierako ekaitzaren ostean, ia burtsa guztiek berreskuratu dute Brexit aurreko maila.

Oraindik oso denbora gutxi pasa da balorazio orokor bat egiteko, baina dudarik gabe Brexit delakoak bai Europako Batasunaren eta baita Erresuma Batuen ekonomian epe luzera izango duen eragina jakiterik ez dago. Ohikoa den bezala, banaketaren aldeko politikari, komunikabide eta ekonomialariek datu onak gorai patuko dituzte, kontrakoei aldiz, laino ilunak. Bitartean, epe motzera aurreikusten zen hondamendia saihestuz, gehiago edo gutxiago sufrituta, Erresuma Batuko nahiz Europako ekonomiaren gurruplak aurrera darrai.

Bi hilabete pasa dira Erresuma Batuk erreferendumean Europako Batasunetik irteko erabaki zuenetik. Analista politikoei eta ezezkoaren aldekoek hondamendia aurreikusten zuten, Erresuma Batuen irteerak merkatuetan kaosa eragingo zuela, liberaren balioa betzeak inflazioa puztu, britainiarren bizitzaren kostua eta prezioak igo eta krisi larria sortuko zuela, murrizketak, etab. Britainiar ekonomiarentzako kalte handiak, azken finean.



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzkaldun Leharren Erakundeak

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zofoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainhoa Andonegi **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Anaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoiz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julien Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ZENTSURARIK EZ

Zenbaitetik nahiago balute ere, ez gara isilduko! Elgoibarko jaietan beste behin ere zentsura aparatuek jo ta su lanean jardun duela salatzen gaituz. Beste behin ere kartel eta pankartak kendu ditu Elgoibarko Udalak txosnagunetik eta kaletik, herri mugimendu eta adierazpenen presentzia zeinen deseroso zaizkion agerian utziz. Gustuko ez diren adierazpen eta mezuen ezabazteak izen bat dauka: zentsura. Are gehiago ezabaketa hori selektiboa denean, ez baitzaizkie irizpide berak aplikatzen herriko elkarte guztiei.

Eraso hauen aurrean argi defendatu nahi dugu espazio publikoa aldarrika-

penerako eremua dela, eremu politikoa, gizarte kritikak eta kezak islatzeko lekua. Kaleak denonak dira, eta ez Udalarenak. Azkenburuan, adierazpen askatasuna dago jokoan auzi honen atzean, gaur gu izan gara baina bihar beste edozein izango da.

Beste herri batzuetan (Arrasaten eta Zumaian, esaterako) pil-pilean dagoen gaia da espazio publikoaren erabilera eta adierazpen askatasunarena. Tamalez Elgoibarren ohitu egin gara urraketa hauetara, zapalkuntza honetara. Gure herrian ere ireki beharreko eztabaida da, ordea, hau; eta gu behintzat ez gara isilik geratuko!


Jaiki



Lucia Larrañaga Idigoras

2016ko abuztuaren 14an hil zen.

**Eskerrik asko ereindako eta emandako guztiagatik.
Askoko maite zaitugu, tia Lutxi.**




VI. URTEURRENA

Jose Luis Huidobro Torinos

2010eko irailaren 4an hil zen, 58 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan.


Emaztea, seme-alabak eta gainerako senideak.



Marcelina Aranzamendi Txurruka

Deban hil zen, 2016ko uztailaren 20an, 83 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Arnaldo Otegi Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetara aurkeztea debekatu diote

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako EH Bilduk aukeratutako lehendakariari Arnaldo Otegi elgoibartarrari kargu horretarako aurkeztea debekatu dio Auzitegi Konstituzionalak. Martitzen arratsaldean, ordubetik pasatxoko saioaren ondoren eman zuen erabakiaren berri.

Otegiaren defentsak haren inhabilitazioaren aurka jarritako helegitea aztertu ere egin gabe atzera bota dutela esan du alderdiak. Ez du tramiterako onartu Otegi

aurkeztutako helegitea eta erabakia jakin aurretik, "seguraski" Europara joko duela eta ez dutela beste lehendakariarik izendatuko esan du.

Espainiako auzitegien bidea bukatuta, 2021eko otsailera arte Otegi hautatua izateko eskubiderik ez du izango, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak ez badu aurkakorik esaten. Beraz, legez, Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeetara ere Otegi ezingo luke aurkeztu.



Trenbide kaleko obrak direla-eta aldaketak egin dituzte trafiko eta aparkalekuetan



Trenbide-sarearen integrazioa hobetzeko lanen baitan Trenbide kalean, Euskotrenek Elgoibarko Udalarik lagatutako lurretan, aparkalekuak berri, eta oro har kale osoa berrurbanizatzeko lanak hasi dituzte.

Udaltzaingotik jakinarazi dutenez, lanek irauten duten bitartean trafikoan hainbat aldaketa egongo dira. Trenbide kalea, noranzko bakarrekoa izango da, Bernardo Ezenarrorek Santa Ana kaleko biribilgunera arte, baita trenbide gaineko zubia ere, Bernardo Ezenarrorek San Rokea arte. Aparkalekuei dagokionez, Bernardo Ezenarro –Osasun Zentroren Trenbide kalera– noranzko bakarrekoa izango denez, ibilgailuek alde batean aparkatu ahal izango dute. Gauza bera egingo dute trenbide gaineko zubian; jaitsierako erreian.

Trenbide kalea berrurbanizatzeko lanak Murgil Eraikuntzak enpresari esleitu zaizkio eta 165.837,34 eurokoa izan da esleipenaren diru-kopurua.

Kalea ur azpian

Lanak hasi eta egun gutxira izan da ezusterik Trenbide kalean. Beharginek ur-hodi bat zulatu zuten astelehenean 15:00ak inguruan eta kale osoa gelditu zen ur azpian. Inguruko zenbait etxe urik gabe laga arren, ilundu baino lehen arazo guztiak konpondu zituzten.



II. URTEURRENA

Maximo Gorosabel Velar

2014ko irailaren 9an hil zen, 84 urte zituela.

Bi urte pasa dira gure artetik joan zinenetik, baina zuk esandakoak eta erakutsitakoak beti ditugu gogoan.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko. Etxekoak.



Mausitxako gazta 50 onenen artean 'Great Taste 2016' elikagai txapelketan

Artzai Gazta elkarteko Mausitxa gaztak Erresuma Batuan The Guild of Fine Food elkarteak antolatutako *Great Taste 2016* txapelketan hartu du parte. Sarritutako produktuak jasotako izarren arabera sailkatzen dira: izar batekin (gozo-goza), bi izarrekin (aparta) eta hiru izarrekin (paregabea). Mausitxako gaztak hiru izar jaso ditu. Gainera, aurkeztu diren 10.000 produktuetatik 50 onenen artean sailkatu da. Sari nagusia Hannan Meats saiheski erreka irabazi du. Mausitxaz gain, Artzai Gazta elkarteko Etxetxia eta La lezek bi izar jaso dituzte.

Horrez gain, Artzai Gazta elkarteak antolatutako Euskadi Basque Country International Cheese jaialdian (azaroaren 16, 17 eta 18an, Donostian) izen handiko World Cheese Awards gazta lehiaketa egingo du. Artzai Gaztako arduradunek esan dute gaztagileei merezi duten omenaldia egingo dietela "urtero gure elikagaiak gorenera eramateagatik".



Bestalde, Legazpiko Artzain Egunean Gipuzkoako 32. Artzain Gazta Lehiaketa jokatu berri da eta bigarren saria eskuratu du Mausitxako gaztak. Gainera, Euskal Herriko lehiaketarako sailkatu da.

Ludoteka eta Gaztelekua datorren astetik zabalik

Ludoteka eta Gaztelekuan ere amaitu dira oporrak, eta datorren astean hasiko dute ikasturtea. Ludoteka astelehenean zabalduko dute, hilaren 12an, eta astelehenetik barixakura egongo da zabalik, 16:30etik 19:30era. Gaztelekua, aldiz, eguaztenean zabalduko dute, hilaren 14an, eta martitzenetik domekara egongo da zabalik. 17:00etatik 20:00etara.

Bertso eskolarako izen-ematea

Bertsolaritza ezagutzeko, ahozkotakuna eta komunikazioa lantzeko eta hizkuntzarekin jolasteko Beinke bertso-eskola hastear da berriz. Izen-ematea Internet bidez edo Elgoibarko Izarrak Ubitarten daukan bulegoan egin daiteke irailaren 23a baino lehen. 50 euroko kuota ordaindu behar da urtean (bazkideek 45€). Saioak martitzenetan egingo dituzte. 5-9 urte bitartekoek 17:30etik 18:30era eta 9 urtetik gorakoek; 18:30etik-19:30era.

Hasi da ikasturtea Oin Alairekin

Elgoibar Ikastolan eta Elgoibarko Herri Eskolan atzo hasi zuten ikasturte berria ikasleek eta Oin Alai egitasmoak ere martxan jarraituko du ikasleak goizetan ikastetxeetara elkarrekin joateko. 8:30ean Kalegoen plazan hasi ziren eta azken urteotako ohihurtari jarraituz eta egitasmoaren izenari ohore eginez modu alaian joateko, musika izan zuten lagun Oin Alai partaideek ikastetxeetarako bidan. Ikasturte honetarako oraingoz, guztira, 40 umek eman dute izena eta horiei laguntzen 13 boluntario arituko dira. Hala ere, Udaletik jakinarazi digutenez, Herri Eskolara joateko boluntarioak falta dira. Bestalde, bi ikastetxeetara umeekin batera joateko jendea animatu nahi dute egitasmoaren antolatzaileek astean behin, bi edo hiru goizetan, senideak, lagunak, zaintzaileak...





Soldaduak Altzolatarren Dorretxearen kanpo aldean. (Argazkiak: Erich Andres. Archivo Estatal)

Tropak Elgoibarrera sartu zirenekoa

Zortzi hamarkada bete ziren uztailaren 18an armada Espainiako Errepublikaren aurka altxatu zela. Ondorioz, hiru urteko gerra hasi zen Espainian, faxistek irabazi eta boterea eskuratu zuten arte. Elgoibarren eragin zuzena izan zuen 1936an, irailaren 21ean, tropa faxistak Azkaraten behera herrira sartu zirenean. Hainbat elgoibartar ihes egitera, soldadu eta erreketek etxean edukitzera behartuz, fusilatuz, atxilotuz... Orduan gertatua askok isilean gorde badu ere gaur egungoek hemendik aurrera oroimenean izan dezaten gertaeren errekreazioa egingo dute Elgoibarren irailaren 16an eta 17an. Elgoibar 1936 taldearen ideiatik abiatu eta Taupadako kide zein beste herritar batzuek sortu dute talde eragilea eta Elgoibar 1936an murgiltzeko herritarren laguntza ere eskatu dute.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



Talde eragilea: Joxemari Larrañaga, Iñaki Odriozola, Jon Etxeberria, Manu Sanchez eta Edurne Lasa.

Elgoibartik 600 biztanletik gora joan zen ihesi; familiak apurtu ziren; lokal, lantoki, auto eta janariak kendu zizkieten; soldadu eta erreketek etxean edukitzera behartu zituzten zazpi hilabetetan; 28 herritar fusilatu zituzten; hamalau elgoibartar hil ziren frontean eta gutxienez beste horrenbeste bombardaketetan; zortzi irakasle baztertu zituzten; eta atxilotuak ere asko izan ziren. Hori guztia irailaren 21ean tropa faxistek Elgoibar mendean hartu ondoren. Ez ziren kaltetu bakarrik izan ordea. Gai nontzeko elgoibartarrak mehatxuaren beldur bizitzera derrigortu zituzten.

80 urte beteko direnez, orduan hura bizi izan eta oraindik bizirik dirautenei, baita jausi zirenei ere omenaldi bat egin behar zaiela pentsatu eta talde eragile bat osatu dute Edurne Lasak, Joxemari Larrañagak, Manu Sanchezek, Iñaki Odriozolak eta Jon Etxeberriak, eta, horretarako egokiena errekreazio bat egitea dela iritzita, irailaren 16an eta 17an herria garai hartara eramango dute herriari berari omenaldia eginez. Orduan bizitako errepresioa agerian jartzea da helburua orain jendeari modu berean erakusteko. "Informazio handirik ez daukagu, adin batetik aurrerakook batez ere", dio Jon Etxeberria taldekideak. Horrez gain, Iñaki Odriozolak jakinarazi duenez, "errekonozimenduaz gain, erreibindikazioa ere bada. Egia, justizia eta erreparazioaren erreibindikazioa".



ERREKREAZIOA LABUR

“Herria zazpi hilabetez okupatuta egon bazen ere, Elgoibarraren gertatua asteburuan laburtzen saiatuko gara erraza izan ez arren”, azaldu du Joxemari Larrañagak.

Barixakua *Milizianoaren gava* izendatu dute eta erakutsiko dute milizianoak nola etorri ziren herrira lubakiak jartzera. Hurrengo egunean, berriz, tropen sarrera izango da eta herria girotuko dute garai hartako hainbat momentutan jendea giro hartan sartuz. “Pentsatzen dugu horrela izan zela egunean bertan, ez zirela batbatean sartu tropak eta herritarrek ez zirela orduan enteratu gerran zeudela. Dena ezingo dugu irudikatu baina saiatuko gara egiten duguna ahalik eta errealean azaltzen”, dio Edurne Lasak. Iñaki Odriozolaren esanetan, “eszena asko dira lekukotatik jasotakoetan oinarritutakoak. Kontatu baitigute beraiei zer egin zieten edo nola gogoratzen dituzten momentu haiek baita beste zenbaitek etxekoei entzundakoak. Esaterako, norbait malkurrarazi, txapela kendu eta lurrera bota zuten”. Lekukotasunak jasotzeko jende askorekin egon dira eta batzuk jadanik hilda ere badaude. “2005-2006an, hasi ginenean, asko kostatu zitzaigun eta jende asko joan da ezer esan gabe. Badirudi orain jendea animatu dela hitz egitera. Lehen mailako testigantzak amaitzen ari dira orain 80 urte dituztenek orduan jaioberriak zirelako eta umeak zirenek ez dugu uste gogoan izango dituztenik, hala ere gerrako kontuak egunerokoak baino errazago gogoratzen dira”.

IKUSLE SOILAK EZ

Eszena hutsekin baino herria osotasunean garai hartara eramanez irudikatu nahi dute gerra sasoa. “Jendeak parte hartzea nahi dugu, orduan zer gertatu zen eta nola bizi izan zuten sentitzea” dio Iñaki Odriozolak. Adibidez, “Azkoitia aldetik tropa frankistak Elgoibar aldera datozela jakin eta sentitzea egun osoan. Eguneroko gure bizimodua egingo dugu baina badatozela jakinda. Gero tropak sartzen direnean bakoitzak dagoen tokian biziko du”, gaineratu du Joxemari Larrañagak.

Horretarako, Edurne Lasak azaldu du, “guk ez genuke nahi jendea ikusle soil bezala egotea. Beraz, eskertuko genuke herritarrek etxetik ateraz gero garai hartako janzkera irudikatzea”.

*“Guk ez genuke
nahi jendea
ikusle soil
bezala egotea.
Beraz, eskertuko
genuke
herritarrek
etxetik ateraz
gero garai
hartako janzkera
irudikatzea”*

Kalegoen plazan babeslekua prestatzen.

garai hartako janzkera irudikatzea. Gizonezkoak mahoizko edo orduko oihalezko prakak, abarketak edo zapata beltzak, alkan-dora eta txapela jantziko dituzte eta emakumeek gonak edo soinekoak asko belauetik behera eta adinean zenbat eta zaharrago ilunagoak batzuek lepoko zuriarekin eta ilea batuta ilea batuta edo kardatuta. Piercing-ak, ordulariak, pulterak... kentzea ere eskatuko dugu”.

Gainera, mugimendua nahi dute. “Tropa etortzen denean prestatuta daukagu etxetik jendea ateratzea eta kalera jaitea eta kalean daudenak parean tokatuz gero besteekin elkartu eta aurrera egitea litzateke egokia. Badago nondik nora joan behar den bideratzeko eta gidari lanetarako talde bat prestatuta”.



Emakume eta umeak babeslekitik irteten.

Tropak eta herriko jende nagusiaz gain, errekreazioari sinesgarritasun gehiago emateko umeak ere txertatuko dituzte, orduan umeek kalean asko jolas egiten zutelako eta garai hartako jolasak erabiliko dituzte makinatxoaren partez. “Gainera, norbait umeekin kalera jaisten bada parte hartzeko gogoz, taldeetan sartu ahal izango dira umeak jolastera”, dio Edurne Lasak. Tropak, umeak, mojak, herritarrek... denak kontuan hartuta 200 lagunetik gora izango dira eta horri gaineratu behar zaizkio egunean bertan errekreazioarekin bat egiten duten elgoibartarrak.

Jendearen itxura egokitu arren herriaren beraren itxura ezingo dute moldatu. Hala ere, saiatu dira tabernariei esaten terrazak ez ipintzeko. Plazan esaterako, balkoietako ikurrak kenduko dituzte eta seinaleak tapatzen ere ahaleginduko dira. Hori guztia egun horretan gertatzen dena grabatu eta gero herritarrei bidaltzeko asmoa dutelako. Prestatzen aritu diren bitartean ikasi egin dutela esan du Jon Etxeberriak eta Edurne Lasaren ustez, grabazio hori aproposa izan liteke herritarrek ezezik, ikastetxeetan umeek hemengo historiaren berri izateko eta ahanzturan ez gelditzeke. Grabazioko irudiak ahalik eta portalik politenetan aterako dituzte, garai hartara gerturatu direnetan.

EKITALDIA KALEGOENEN

Zapatuan eguerditik nahi dute herria girotzen hastea eta jendearen jarrera kontuan hartuko dute. Besteak beste gertatzen diren ekintzekin bat eginez eta gaur egungo kontuetatik atzera begira jarriz, teknologietan esaterako. Hala ere, arratsaldean bizituko da herria kanpai hotsen harira eta errekreazioaren ondoren, ekitaldi nagusia Kalegoen plazan izango da, 21:00etan. "Elizako azken kanpaiarekin hasiko da eta kandela gorriak piztuko ditugu poema bat entzuten den bitartean egia, justizia eta erreparazioa eskatzeko. Beraz horri buruzko kontzientzia duena garai hartako janzkerarekin eta kandela gorri banarekin plazara gerturatzea nahi dugu, plaza bete eta gorputza emateko". Ordurako miliziano, uniformedun eta horiek guztiak desagertuta egongo dira. Amets gaiztoa izan zela, inor ez dela epaitua izan eta inori ez zaiola erantzukizunik leporatu salatuko dute eta horretarako justizia behadela argi utzi.

EGITARAUA

IRAILAK 16, BARIXAKUA

Milizianoen gaua.

IRAILAK 17, ZAPATUA


21:00 Kandelen piztutzea. Egia, justizia eta erreparazioaren eskaera. Kalegoen plazan.

IRAILAREN 19tik URRIAREN 1era


19:00 Erakusketa: *Legion Condor Alemana Euskal Herriko bonbardaketetan*. Aurkezpena: Klaus Balezta. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Asteleheneetik barixakura, 18:30etik 20:30era. Zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.

IRAILAK 21, EGUAZTENA


19:00 Hitzaldia: *Frankismoaren aurkako Argentinako kereila*. Hitzlaria: Josu Ibargutxi. Kultur Etxean.



Babeslekuko zakuak.



Soldaduak plazan.



Kanoiak prest.

Teknologiarik ez

Asmoa garai hartara itzultzea izanik, teknologia berriak soberan daude, beraz, eskaera hauek egin dituzte:

- ◆ Tabernariak telebista eta musikaririk ez ipintzeko eguerditik aurrera.
- ◆ Sakelako telefonorik ez erabili, ez deiak egiteko ezta argazkiak atera edo bideoak grabatzeko ere. Propio aterako dituzte argazkiak eta bideoak antolatzaileek eskatuta. Poltsikoan izanez gero isilean eduki.
- ◆ Umeek makinatxoak ez erabili, kaleko bestelako jolasak baizik.
- ◆ Argazkilariek flashik ez jarri kamerei.



I. URTEURRENA

Luisa Aierdi Iriondo

2015eko abuztuaren 15ean hil zen, 90 urte zituela.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.



Concepto Egilek Toulouse izango du aurkari aurkezpen partidari



Concepto Egilek denboraldi berrirako osatu duen taldea zaleen aurrean aurkezteko partida handia prestatu du C.D. Debabarrena areto futbol taldeak. Frantziako bigarren mailan jokatzeko duen UJS Toulouse taldearen aurka neurtuko ditu indarrak Conceptok zapatuan (irailak 10), IMH kiroldegian (18:30). 28 urteko kirol ibilbidean parte hartuko duen nazioarteko lehen partida izango dela jakinarazi dute C.D. Debabarrenako arduradunek. Gonzalo Iglesias Morenín espainiarra da Toulouseko entrenatzailea eta Frantziako selekzioan jokatu izan duten hiru jokalaririk daude taldean. Toulousek makina bat urtean jokatu du Frantziako areto futboleko mailarik gorenean, baina Bigarren Mailan dihardu orain. Laz hirugarren postuan amaitu zuten liga txapelketa.

IMHko kantxa eta Ikastolako frontoia alokatzeko aukera

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakitera eman duenez, IMH Kiroldegiko kantxa eguenetan, 19:00etatik 20:00etara, alokatzeko aukera izango da, ordu hori oraingoz libre dagoelako. Orduko 40 euroko prezioa dauka. Ikastolako frontoia alokatzeko ordu libreak ere badaude, astelehenetik barixakura, 17:00ak eta 22:00ak bitartean. Prezioa: 10 euro orduko (argia eta duxak barne). Interesa dutenek Olaizaga kiroldegira deitu dezakete (943 744 415).

Lagunak Pilota Eskola martxan da

Lagunak Pilota Eskolako arduradunek jakinarazi dutenez, zabalik dago eskolan izena emateko epea. Interesatuek astelehenetik eguenera, arratsaldean, Ikastolako frontoira agertu beharko dute. Era berean, honako telefono zenbakira deituta ere eman daiteke izena: 690 612 927.

Elgoibartarrak nagusi Kakuteko igoeran

Izerpin Kakutea Ixoerie mendi lasterketa izan zen estreinakoz Azkoitiko Anaitasuna Mendi Bazkunak antolatuta, joan den zapatuan, irailaren 3an. Azkoitiko Balda plazatik irten ziren parte hartu zuten 54 saltakariak, banan-banan, eta Kakuteko tontorrera arteko lau kilometroak egiten azkarrena Iban Murua elgoibartarra izan zen, 32 minutu eta bi segundoko denborarekin. Bi minutu eta 38 segundoko aldea atera zion bigarren denborarik onena egin zuen Iñigo Lariz (34:40) herrikideari, eta lau minututik gorakoa hirugarren sailkatuari, Beñat Kataraini (36:08). Emakumezkoetan Leire Fernandezek (Errenteria, 1998) ezarri zuen denborarik onena (43:24). 24 segundoko aldea atera zion bigarren denborarik onena egin zuen Ainhoa Lendinez elgoibartarrari.



Arg. Urola Kostako Hitzza



Juan Rodriguez Soria

2016ko irailaren 5ean hil zen, 60 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Iaz Donostiako Zinemaldian Zilarrezko Maskorra jasotako filma ekarriko du Ongarrik Elgoibarrera

Sigourney Weaver, Ethan Hawke, Hugh Grant, Ewan McGregor eta Richard Gere hartuko ditu besteak beste Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren 64. edizioak. Bitartean Ongarrik Elgoibarren, urtero legez irailean antolatzen duen 'Zinemaldiak' zikloan Belgika, Frantzia eta Italiako filmak izango dira ikusgai. Estreinatutako berri diren filmak ere aukeratu dituzte: *Pastel de pera con lavanda* eta *Un amor de verano*. Donostiako zein Locarno eta Veneziako zinemaldietan ikusi ahal izan diren lanak dira.

- LEIRE URKIDI -



'Cegados por el sol' (A bigger splash). Hilaren 15ean eta 16an. 21:30ean.

Mediterraneo aldean ezarriko ebakuntza batetik sendatzen ari den rock izar bat, haren bikotekidea, manager eta maitale ohia eta neska gazte bat dira pertsonaia nagusiak. Haien arteko harremanak eta tirabirak dira nagusi sexuak pisua duen drama honetan. Luca Guadagnino zuzendari italiarraren lan hau, Jacques Deray-ren *La Piscine* (1969) filmaren *remake*-a da. Veneziako zinemaldiko sail ofizialean lehiatu zuen iaz.

'Pastel de pera con lavanda' (Le goût des merveilles). Hilaren 17an 21:30ean, 18an 19:00etan eta 19an 21:30ean.

Eric Besnard zuzendariak film sensoriala sortu nahi izan du oraingoan. Frantziako Proventza eskualdean girtutako istorio honetan Louisek ia Pierre harrapatuko du kotxearekin. Ez dute elkar ezagutzen, baina Louis laster ohartuko da Pierre berezia dela. Adimen handia baina komunikazio arazoak ditu mutilak. Hala ere, Louis txundituta utziko du Pierrek bere berezitasunekin eta pertsonaia hauen harremanen inguruan eraikiko da gure pantailetan udan estreinatutako komedia.



'Un amor de verano' (La belle saison). Hilaren 20an eta 21ean. 21:30ean.

Parisen, 68ko maiatzen ondorengo iraultza feministan, murgiltzen gaitu Catherine Corsini zuzendariaren azken lanak. Delphine, baserriarren alaba da eta independentzia ekonomikoaren bila Parisera joango da bizitzera. Bertan, Carole ezagutu eta maitemindu egingo dira baina atzera etxera bueltatu beharko du eta elkarrekin jarraituko badute ere, ez zaie erraza egingo bien arteko harremana landa eremuan azalartzea.

'Los caballeros blancos' (Les chevaliers blancs). Hilaren 22an eta 23an. 21:30ean

Donostiako zinemaldiko Zilarrezko Maskorra *Los caballeros blancos* filmarentzat izan zen iaz. Zuzendari onenaren saria da eta Joachim Lafosse zuzendari belgiarrak jasotako Chadeko gertaera errealak biltzen dituen lan honengatik. Gerra zibilaren biktima izandako 300 haurren adopzio prozesua erakusten du eta gobernu kanpoko erakunde lanaren mugen inguruan pentsaraztea bultzatzen du.




I. URTEURRENA

Andresa Izagirre Badiola

2015eko irailaren 1ean hil zen, 91 urte zituela.

**Zure falta sumatzen dugu Garagartza aldiari.
Jaso ezazu gure maitasuna, orain zauden tokian.**



Giro onean ospatu dituzte San Antolin jaiak Arriaga auzoan



Ekintzaz beteriko asteburua antolatu zuten Arriaga auzoan San Antolin jaien harira, eta giro onean ospatu zituzten festak. Jokoa eta jolasa uztartu dituzte aurten ere. Oliba-hezur eta txapel jaurtitze txapelketa, igel-toka, patata tortilla txapelketa, mus edota dantza txapelketa izan dira besteak beste. Horrez gain, umeentzako puzgarriak izan dira aurtengo berrikuntza. Bertso afarian ere umorerik ez zen falta izan.

2017ko egutegirako argazki lehiaketan parte hartzeko epea urriaren 14an amaituko da

2017ko egutegia prestatzeko argazki lehiaketa antolatu du Udalak, eta aurtengo gaia Elgoibarko eraikinen fatxadak da. Eraikinak, leihoak, atekak, balkoiak... Fatxadetako elementuak jaso beharko dira argazkietan. Lanek originalak, formatu digital eta horizontalean beharko dute izan. Ezinbestean, gutxieneko erresoluzioa 300 ppp izango da. Parte hartzeko epea urriaren 14an bukatuko da. Argazkiak euskara@elgoibar.eus helbidera bidali behar dira. Argazki sarituak Elgoibarko Udalaren 2017ko egutegian azalduko dira eta egileek 70 euroko saria jasoko dute.

Nere Sasiainek laugarren egin du Zarauzko Aurreku eta Soinu Zahar txapelketan

Joan zen asteburuan hasi zen Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa Zarautzen, eta bertan, Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako Nere Sasiainek hartu zuen parte, 15 urtetik gorako mailan. Elgoibartarrak 'bikain' dantzatu zuela adierazi dute Inazio Bereziartua eskolako arduradunek, eta horri esker, laugarren postua eskuratu zuen. Urriaren 1ean Pasai-Antxon hartuko du parte.

Datorren zapatuan, bestalde, dantza ekitaldi berezia izango da Donostiako Kostituzio plazan, eta han parte hartuko dute Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako Nere Sasiainek eta Haritz Euskal Dantzari Taldeko Maria Ferreirok, Andrea Arregik, Itziar Aldalurrek eta Aitor Asenjok.

Gurasoentzako euskara ikastaroak

Elgoibarko Udalaren Euskara Sailak, Udal Euskaltegiak eta AEK euskaltegiak gurasoentzako euskara ikastaroak antolatu dituzte, herriko ikas-tetxeekin elkarlanean. Euskara ikasteko hainbat aukera eskainiko dituzte: euskara ikasten hasteko, hobeto edo errazago berba egiteko edota hobeto idazten eta irakurtzen ikasteko. Izena emateko epea irailaren 23an amaituko da. Informazio gehiagorako: 943 742 731 (Udal Euskaltegia) edo 607 601 423 (AEK).

Egur arte eskolak urrian hasiko du ikasturtea

Urrian hasiko da ikasturtea Egur arte eskolan, eta aurten ere hainbat ikastaro eskainiko dituzte: umeentzako bi margo ikastaro, nagusientzako oleo tailerra, zeramika ikastaroak ume zein nagusientzat, eta berrikuntza izango da grabatu kalkografiko ikastaroa. Izena emateko epea irailaren 16an amaituko da. Informazio gehiagorako ondorengo telefono eta e-posta jarri dituzte: 666 557 538 edo egurarte@gmail.com.

Sallobente jaietako errifak badu irabazlea

30.387 izan da Sallobenteko jaietako errifan zenbaki saritua, eta Arantzazu Zubizarreta Goikoetxea izan da irabazlea. Txahalaren ordeztu, 1.205 euroko txekea aukeratu zuen. Itziar Irazabalbeitia Sallobente elkarteko kideak eman zion txekea.



LANA.....

Eskaerak

Geriatría laguntzailea adinekoak zaintzeko prest. Paseatzeko prestutasuna. Gauzez ere, ospitalean zein etxean.
☎ 660 511 7817/ 943 742 330

Gabi jateak jantokirako zerbitzaria behar du. Jardun osoa. Euskalduna izatea hobetsiko da. ☎ 943 741 230

Asteburuetan pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest nago.
☎ 631 974 374

Pertsona arduratsua, esperientziaduna, erreferentzia onak. Garbiketa lanak egin

edo adinekoak zaintzeko prest nago.
☎ 681 065 683

Eskaintzak

Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona behar dugu. Zortzi orduko lan jarduna, goizez.
☎ 659 287 122 (arratsaldez deitu)

ETXEBIZITZAK.....

Alokairua

Alokairuko pisu bila gabiltza lau pertsonentzako. Hiru logeekin eta igogailuarekin. Ahal dela Elgoibarko erdigunetik gertu. ☎ 671 289 584

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoiba-

rren. Logela bat edo bi gehienez.
☎ 631 098 995

LOKALAK.....

Alokairua

Eibarko Alberto taberna traspasoan ematen da. Juan Gisasola kalea, 10 (E-getako bidean). Bezero kartera ona.
☎ 692 321 479

BESTELAKOAK.....

DBH4. mailako liburuak salgai. Egoera onean eta merke. ☎ 650 783 512

Bikientzako haur-kotxe osoa salgai. Egoera onean. Jane twin two modeloa. Bi

matrix aukeri, euritako plastiko guztiak, polisa... 300€. ☎ 676 889 260

Lau metro diametroko sonbrila eta zintzilikatzeko hamaka salgai. Egoera onean.
☎ 943 531 648

OSPAKIZUNAK.....

1948an jaiotako bazkaria irailaren 24an. 12:30ean Kalegoen plazan elkartuko dira, mokaduxoa egin eta argazkia ateratzeko. Bazkaria Sigman, 14:30ean. 65 euro ingesatu *Nacidos en 1948* kontzeptuarekin, Julian Mugicaren izenean dagoen Laboral Kutxako zenbaki honetan: 3035 0007 23 00 7113-2820

LAN DEIALDIA

Elgoibarko Izarrak Daixola! programarako hezitzaileak behar ditu

ESKATZEN DA:

- ◆ Elgoibarko Izarrako formazio saioetan parte hartzea.
- ◆ Begirale titulua edo hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea.
- ◆ Ahozko eta idatzizko euskara maila altua izatea.
- ◆ Elkarteko ordezkariarekin egin beharreko batzarretan parte hartzea (astean zehar)

BALORATUKO DA:

- ◆ Aisialdian lan-eskarmentua izatea.
- ◆ Parte hartze tekniken inguruko formazioa jasota izatea.
- ◆ Jarrera dinamikoa eta sortzailea izatea.
- ◆ Taldean lan egiteko gaitasuna izatea.

ESKAITZEN DA:

- ◆ Urte guztiko asteburuko lana, lan kontratuarekin.
- ◆ Formatzeko aukera.



Curriculumak AURKEZTEKO epea: irailaren 9a, ostirala. Ubitarte 4, behea. 20870 ELGOIBAR
atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus (Naiara) 943 741 626



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Hezetasunaren ondorioz gure eraikinak kalte larriak ditu eta komunitateak derrigorrez hainbat gunetan habeak jarri beharko ditu. Orain dela hilabete gutxi arkitektu bat kontratatu genuen eraikinaren egoerari buruzko txostena egiteko. Horren arabera mantenu faltan dago eta hori komunitatearen ardura da. Etxejabeen azken bilera erabaki genuen txosten teknikoak eskatzen dituen lanak egitea. Ondorioz, nire etxebizitzatik atera beharko naiz denboraldi baterako. Zein eskubide ditut egoera honen aurrean?

Etxejabeen komunitateak antzerako beste etxebizitza baten alokairua ordaindu behar du lanek irauten duten bitartean. Izan ere, komunitateak arauak bete ez dituelako gertatu da hori.

Legeak dio etxebizitza edo lokal baten jabeak derrigorrez onartu behar dituela higiezin-zerbitzuak eskatzen dituen konponketak, baita ere interes orokorreko zerbitzu komunetarako eskatutako zortasunak. Beti ere kalteak eraginez gero komunitateak ordainduko ditu.

Jurisprudentziak sententzietan behin eta berriz ezartzen du derrigorrezkoa dela baimena ematea etxe edo lokal batean sartzeko elementu komunetan beharrezko mantenu, berritze eta konponketak egiteko. Baina horretarako ez da beharrezkoa izango benetako zorrik egokitzea, nahikoa da legezko arauetatik eratorritako betebeharrak konplitzea. Gehienetan elemento komun baten konponketa da eta beharrezkoa da egitea eta horretarako lanak jaberan baten etxe edo lokalean egiten dira.

AHOLKUA: Komunitatearen indemnizazioa lanek eragindako kaltearen ondorioz egiten den alokairua ordaintzeko izango da.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Luken**, uztailaren 31n 8 urte bete zenituelako. Muxu handi bat.



Zorionak, **Mikel**, gaur 8 urte egin dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



Zorionak, **Sare!** Irailaren 15ean 3 urte! Asko maite zaitugu. Etxeko eta, bereziki, Lie-rreren partez.



Zorionak, **Xuban!** Asko maite zaitugu.



Zorionak zure zazpigarren urte-betetzean, **Sare**. Muxu asko guztion partez prexioxa.



Zorionak, **Julen**, bihar bi urte handi beteko dituzulako. Familiako guztien partez, oso ondo pasa!



Zorionak, **Enaitz!** Zelako ondo pasatu genuen astelehenean! Muxu handi bat etxeko eta partez.



Zorionak, **Aiora**, atzo 7 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



Tik-tak, tik-tak... badixe denbora curren! Zorionak eta ondo pasat! Pastelak espero ditugu!



Zorionak, **sor-gintxo!** Zazpi muxu potolo Naia, Intza, Malen eta Oierren partez.



Zorionak, **Iker eta Nuria!** Urte honetako azkenak izan arren, ez gara zuekin ahaztu. Primeran pasatu egun berezi hori. Zuen koadrilakoak.



Zorionak, **Oihanetxo** abuztuaren 10ean 3 urte egin zenituelako, eta ongi-etorri, **Ibai!** Asko maite zaituztegu.



Maule Rojo Osoro, abuztuaren 19an jaio zinen. Arreba **Ihartek** 7 urte bete ditu. Zorionak etxeko eta bereziki, Mauleren partez.



Zorionak, **Ana eta Luis**, ezkondu zirenetako 61. urteurrenean. Segi horrela beste horrenbeste urtean.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
 Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
 Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 741 626

Kalebarren plaza, 2
 20870 ELGOIBAR

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
 optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
 Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

LASAITU ETA
 BABESTU BEGIAK
 PANTAILA ELEKTRONIKOEN
 AURREAN

Eyezen

2016
 Veritas LIZ
 Espirituta

A. Garate

Era guztietako igeltsaritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
 Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651

8 EGUENA

9:00 Erakusketa: *Azterkosta*. Itsasbazterra-
ren berezitasunak. 9:00-14:00 eta 17:00-
20:00. Irailaren 20ra arte. Mendaroko
udaletxeko sarreran.

12 ASTELEHENA

16:30-19:30 Ludotekaren irekiera.
Astelehenetik barixakura.

14 EGUAZTENA

16:30-19:30 Gaztelekuaren irekiera.
Martitzenetik domekara.

15 EGUENA

21:30 Zinemaldia. Cegados al sol.
Ongarri zine kluba. Herriko Antzokian.

16 BARIXAKUA

21:30 Zinemaldia. Cegados al sol.
Ongarri zine kluba. Herriko Antzokian.

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

8 Eguena ORUESAGASTI
9 Barixakua BARRENETXEA
10 Zapatua IBAÑEZ
YUDEGO (9:00-14:00)
11 Domeka IBAÑEZ
12 Astelehena GARITAONANDIA
13 Martitzena BARRENETXEA
14 Eguaztena FERNANDEZ
15 Eguena YUDEGO
16 Barixakua ORUESAGASTI

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara
ETXEBERRIA (Elgoibar)
Santa Ana, 1
Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)
Fermin Calbeton, 19
Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Ga-
ragartza (Mendaro)
Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
(Soraluze) Tel.: 943 751 384

**ETXEBIZITZA BAT
EROSTEKOTAN NAGO.
ZER DA HOBEA
INTERES FINKOKO EDO
ALDAKORREKO
MAILEGUA ESKATZEA?**


- Interes finkoko mailegua garestiagoa da egun. %2-
%2,5 inguruan dabil, alda-
korrekoa, aldiz, %0,80-%1
inguruan.
- Interes finkoko maile-
guan gehiago ordaintzeak
lasaitasuna eta segurta-
suna dakar. Izan ere, mail-
leguaren hileko kuota beti
berdina izango da.
- Interes mugikorreko
mailegua merkeagoa da
eta ez dirudi epe motz eta
ertainean gora egingo
duenik Europako egoera
ekonomikoa medio. Ho-
rrela bada, seguru aski
hurrengo urteetan onura-
garriagoa izango da era
honetako mailegu bat.
- Adibidez, Japonian, in-
teres tasek %0an 20 bat
urte daramatzate. Hemen
horrelako zerbait gertatu-
ko balitz –ezin da esan
gertatuko ez denik –, mail-
legu finkoan interes askoz
gehiago ordainduko geni-
tuzke denboran zehar.
Gogoratu 2009ko martxo-
tik Euriborra %2aren azpi-
tik dagoela.

Atal honetarako galderarik
proposatu nahi izanez gero
idatzi helbide elektroniko hone-
tara: galderak@bankoa.es



Josefa Baskaran Balenziaga

Abuztuaren 6an hil zen, 86 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Pedro Zuloaga Arrieta

2016ko abuztuaren 6an hil zen, 65 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.**

Etxekoak

Josemari Lasa Amorebieta

Bilbon, 2016ko abuztuaren 26an hil zen. Haren oroimenez meza izango da, zapatuan, irailak 10, 19:00etan, Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**"Zu sortu zinen enbor beretik
sortuko dira besteak,
burruka hortan iraungo duten
zuhaitz-ardazka gazteak..."**

Maitasun handiz mila esker!
Zure familia



Josemari Lasa Amorebieta

Bilbon, 2016ko abuztuaren 26an hil zen.

**"Heldu da alde egiteko ordua baina
gavean zerura begiratzen duzunean go-
goratu, ni horietako izar batean egongo
naiz barrezka eta zuk, nik bezala, barre
egingo diezu izarrei, horrela, beti gogo-
ratuko dugu elkar eta ez gara inoiz baka-
rrik egongo. Gure sekretua izango da!**

**Funtsezkoena begietara ikusezina delako,
ez adiorik!"**

Patxi, Edurne eta Larra



Manu Sanchez



Unai Villena



Pasa dira udako bero-sapa, beroaldi eta berotuak, tirantedun tixertak, praka motzak eta minigonak, bikiniak eta burkiniak, nudismoa, hondartzako bainu, luzimendu, harea, paseo eta poseak, Danone (eta "saltixone") gorputz gazitu kremazatuak, azal bero distiratsuak, txiringitoak, izozkiak, etxeratu aurreko kañak, kresala kentzeko dutxak arratsaren hondarrean. Pasa dira aurtengo sanferminak, mada-lenak, santanak, Txiki Eguna, Aste Nagusiak, galtza eta bandera piratak, zapi gorri, berde eta urdinak, txarangak, barrakak, txosnak, katxiak, kubatak, kontzertuak, leporaino dauden tabernak, flirtak, gau bateko amodio-afarak, adarrak, entzierro eta sokamuturrak, korridak eta sexu eraso onartezinak (aski da!). Pasa dira festak eta siestak, atse-

ginezko baretasun epela, alferkeria goxoa, zorioneko asperdura, erlojuarekiko independentzia, maleta eta motxila bete-beteak, inprobisazioa, deskonexioa, igerilekuetan buruz pulunpatzea, liburuak hasi eta buka irakurtzeko aukera, otordu berantiarrak, tomate heldu gorri mamitsuak, entsalada koloretsuak, arrain eta haragi parrillak eta paellak, gereziak, meloiak eta melokotoiak, lehertzerainoko jana eta edana. Aurtengo udarak onenak eman ditu jada. Hortxe daude oraindik, halere, *eurenkolorekotzen* joango diren azal beltzaran-ia-mulatoak, laburtzen joango diren egun eguzkitsuak, indargetzen joango diren oroitzenak, begi-kliska batean agortuko diren goraino kargatutako pilak, eta, guztien hondoan (edo azalean), uda eta uda arteko denbora uda balitz eta umeak bagina bezala bizitzeko gogoak. Luzaroan irauñ dezatela! Errutina berrira itzulera on!

*'Aurtengo udarak onenak eman ditu jada.
Errutina berrira itzulera on!'*



Txomin Mendez Rodriguez

2016ko abuztuaren 30ean hil zen, 75 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zu joan zara, baina,
zureganako gure maitasuna ez.
Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun
ilusioa eta bizipoza.***

Etxekoak



Roke Arregi Garate

2016ko abuztuaren 22an hil zen, 94 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Gu sortu ginen
enbor beretik
sortuko dira besteak.***

Etxekoak



Leonor Portilla Perello

2016ko uztailak 21ean hil zen, 85 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

barrena 11, EIBAR

garajesGarcía.com

KUPOI HONEKIN

%10ko
deskontua
filtroetan



www.garajesgarcia.com
g.garcia@garajesgarcia.com

Erabaketa: 943 820 697
Lanategia: 943 202 214
943 127 271

13.000€



RENAULT CLIO VAN SOCIETE 15 DCI 64 CV
Motorra: DCI cm3 1.5 Diesel
Kilometroak: 70.000
Egoera: Erabilia

13.800€



DONDACR-V 2.2 IDTEC COMFORT
Motorra: 2.2cm 3 IDTEC Diesel
Kilometroak: 226.000
Egoera: Erabilia

14.800 €



AUDI A4 TDI 2.0 BPP 143
Motorra: 2.0cm 3 TDI Diesel
Kilometroak: 86.000
Egoera: Erabilia

6.500€



RENAULT CLIO BUSINESS
Motorra: 1.5cm 3 DCI Diesel
Kilometroak: 106.000
Egoera: Erabilia

11.500€



CITROEN DS3 1.6VTI SPECIAL EDITION 120
Motorra: 1.6cm VTI Gasolina
Kilometroak: 115.000
Egoera: Erabilia

5.000€



BMW 525 D
Urtea: 2002
Kilometroak: Kontsukiata

16-17 IKASTURTEA

DEBATE
UDAL EUSKALTEGIA

Kalebarren plaza, 2
Elgoibar

09:00 – 13:00 / 15:30 – 19:30

Tel.: 943 742 731

MATRIKULA ZABALIK
EUSKALTEGIETAN

Abierto el plazo de
matrícula en los euskaltegis

EUSKARA IKASTEKO
UDALAREN
DIRU-LAGUNTZAK

Ayudas municipales para
aprender euskera

Langabetu, pentsiodun, ikasle eta
12 urte bitarteko haurrak dituzten
gurasoek matrikula erdia ordainduko dute.

Las personas desempleadas,
estudiantes, pensionistas y padres/madres con hijos/hijas menores de 12 años deberán abonar la MITAD DE LA MATRÍCULA.

Ikastaro berezietarako (etorri berrirentzako AISA harrera ikastaroa, dendariak, ostalariak,...) laguntza bereziak.

Ayudas para cursos específicos (curso de acogida para inmigrantes AISA, comerciales, hosteleros/as...).

Beka lortzeko aukera.
Posibilidad de conseguir BECAS.

16 urtetik gorakoentzat. Matrikulaldia: irailaren 28ra arte

aek
euskara proiektua

100%
AFECTIVO

ELGOIBARKO
AEK EUSKALTEGIA

Gabriel Kurutzelaegi, 10

[Tolehexgain tren
geltokiaren bestaldean]

Tel: 607 601 423
elgoibar@aek.eus

Eman
izena
Matrikulatza



4448 herriko mugak ez dira erakusten. Erakutsita dagoen informazioa ez da erantzulegarria. Aholkularia ofizialak ez dira erantzulegarriak. Erakutsita dagoen informazioa ez da erantzulegarria. Erakutsita dagoen informazioa ez da erantzulegarria.

473 300 108 - Fax: 444 058 - www.aek.eus

